

UDAN BAI » RAPA NUI HERRIA



Ondare geologiko handiko uhartera da. ARCAZNAK: JABIER LES

MIKEL CARRAMIÑANA

Askok munduko mapan kokatzerik izango ez badute ere, aski ezagunak dira Pazko uharterko (Txile) *moai* izeneko eskultura erraldoiak, gorputz enborrek eta buru handiek osatutako harrizko irudi ikusgarriak. Gutxiak ezagutzen dute besterik Rapa Nuiko herriari buruz, besteak beste, biztanleak dituen lurreko lekuriak bazterrena delako, Pitcairn irletatik 2.075 kilometrorra eta Txileko kostaldetik 3.600 kilometrorra dago. Askoz ere urrunago bizi ziren duela urte batzuk Pazko uharterekiko arreta berezia jarri zuen talde bateko lagunak, Euskal Herrian, hain zuzen ere. Jabier Les Alfonso Antxia espeleologi zientzien elkarteko kideak aitortu zuenez, «uhartera bidaiatu baino askoz ere lehenagotik» ari ziren Rapa Nuiri buruzko informazioa biltzen. Izan ere, aztarna arkeologiko asko ditu eta batez ere ondare geologiko handia.

Ondare hori ikertzeko asmoz, espedizio garrantzitsuak egin dituzte azken hamarkadetan Pazko uhartera; besteak beste,

Uharterik bazterrenaren bila

Pazko uhartera eginiko bidaiak liburu batean jaso dituzte Alfonso Antxia espeleologia elkarteko lagunek.

1979an eta 1983an Frantziako talde batek eginikoa, Balazsek 1985ean eginikoa eta Monserrat Ubach eta Jordi Lloret kataluniarrek 1992. urtean eginikoa. Duela bi urte abiatu zuten Alfonso Antxia elkartekoek Rapa Nuirako lehenengo espedizio zientifikoa. Emaizta interesgarriak izan zituzten: 26 koba aho sailkatu zituzten eta 5,5 kilometroren azterketa topografikoa egin zuten. Horrez gain, barrunbe asko lotu zituzten eta, arkeologiaren eremuak aurkikuntza ugari egin zituzten, pertsonen hezurak, aizkorak eta gezi puntak aurkitu zituzten kobetan. Jabier Les taldeko buruak ohartzarazi zuenez, ikertutako eremua, Ana te Pahu-Ana Aharo, munduko laba kobazulorik handieneta-



koa da eta, era berean, Txileko leize sistamarik luzeena.

Urte bi igaro ziren aurreneko bidaiak hartatik eta, hasieratik, Pazko uhartera itzultzeko asmoa agertu zuen Lesek gidatutako Euskal Herriko espeleologo taldeak, Gaizka Carretero eta Urtzi Uriarterekin batera egin baitzuen espedizioa. Bidaia bera egin ahal izatea ere zailtasun handiak dituela azaldu du Lesek: «Askotariko baimenak lortu beharra dago, Unescorena, Txileko Gobernuarena eta

Rapa Nuiko Zaharren Kontseilua-rena. Hemendik aurrera, gainera, litekeena da are zailagoa izatea baimenak eskuratzea, Munduko Zazpi Mirari berrietako bat izenda dezaketelako uhartera eta, horrela izanda, are gehiago babestuko dute aurrerantzean».

TRIBUEN OHITURAK. Aurtengo otsailan izan zuten uhartera itzultzeko aukera, eta ederki baliatu zuten. Roihoko kobazulo sistemaren barruan mila metro berriren